J. Thalamas Labandibar

Iragan otsailaren azkenaldian hil zaigu Kanbon Juan Thalamas Labandibar jauna. Bere heriotzak eztu izan hots handirik eta behin eta berriz, gertakari honek, nabarmen jartzen digu gure kulturaren ajea.

Hil honen 5eko ***El Diario Vasco*** *egunkarian Migel Pelay Orozkok eskaintzen zion oroitzapenez eta sentipenez betetako artikulu bikain bat, Thalamasen lanak eta gizontasuna adiaraziz. Hala ere, aspalditik hainbeste aldizkaritan idatzi duenaren lan osoaz jabetzea ezta gauza erraza. Thalamasekin, gure kultur jakintzak gizon handi bat galdu du.*

Jakitunik gehienak bezala, gizon apala zen. Duela zenbait urte euskal idazleen katalogogintzan ari nintzela, ***Euskaltzaindiko urgazleen curriculum-a*** *ere egin nuen eta hauen artean Juan Thalamas-ena. Labur eta zehatz eman zizkidan bere ekintzen berriak, baina bere apaltasunaren agergarri, bere fitxarekin batean Isidoro Fagoaga zenaren berri ugariagoak jaso nituen, berana bezain probetxuzkoa izango nuen ustez bidalia. Hala baliatu nintzen bere garaian Fagoaga zenaz idaztean. Ikus* ***Gogoz****-en 380-383 orrialdeak.*

Juan Thalamas Labandibar eta Enparan, Irungo Behobian sortu zen 1906ko apirilaren 6an. Muga mugako haurrik gehienak bezala, hiru hizkuntza zekizkin. Apaiz egin zen eta Tolosa-ko (Toulouse) katolikoen Unibertsitatean egin zituen Filosofia ikastaroak eta Pariseko San Sulpicio Mintegian Teologiakoak. Gero, Soziologia eta frantsez hizkuntzaren irakasle Gasteizko Seminarioan. Garai honetan hasi zen etnologiaz eta gizarte arazoaz idazten. ***Idearium*** *eta* ***Yakintza*** *kultur aldizkariak eta* ***El Dia*** *egunkaria lekuko. Orduko lanik mamitsuenak ditugu:* ***Contribución al estudio etnográfico del País Vasco continental*** *(1931ko* ***Anuario de "Eusko-Folklore"****-ren argitaratua, 1-120 orr.);* ***Laicismo y Cristianismo*** *(1933); eta* ***Aspectos de la vida profesional vasca*** *(1935).*

Gudak herbesteratu zuen. Gero, munduko gudatea bukatzeaz, apez deserrituek Parisen ateratzen zuten ***Anayak*** *zeritzan aldizkarian idazten zuen. 1945ean, Rafael Pikabea eta Isidoro Fagoagarekin batean,* ***Gernika*** *kultur aldizkariaren sortzaile izan zen, eta lanik anitz agertu zuen bertan, inolz izenordez agertzen ziren, lehen lehenagotik erabiltzen zituenez. Besteak beste, lanori bere jabetasuna ematean, honako izenordeak erabili zituela jakitea komeni da: Basaburu, Juan de Emparan, Juan de Landibar, Pagogaña, J.P. Yoldi, M. Astiz Dorrea, Pierre Andizabal eta abar.*

1954an herriratu zen, Donostian bizitzeko. ***Lehenbizi El Bidasoa*** *aldizkarian idazten hasi zen eta gero* ***Herri Adiskideen Boletinean,*** *bereziki euskaldunon mentalitateari buruz. Lanok, liburu batean biltzea merezi dute, zeren bere iker-saioak jakingarriak bai dira guk geure nortasuna hobeto ezagutzeko.*

Azkue zenaren mendeurrenean, 1965ean, Lekeition bi lehiaketa eratu ziren, Linguistikazkoa eta Etnologiazkoa, bate Mitxelenak irabazi zuen eta bestea Thalamasek. Bere lan saritua, handik hamar urtera argitaratu zen ***La mentalidad popular vasca, según Resurrección Mª de Azkue*** *izenburuz. Bertan, Azkue zenak* ***Euskalerriaren Yakintza*** *deritzan lanean bildutakoaren azterketa egiten du, jentilen kontuak, etxekoak' jaialdiak, sorginkeriak, sineskerak eta abar. Liburu aberatsa da euskal etnologia ezagutzeko eta azterketak gurrera eroateko.*

Herri Adiskideen Boletinean (Bol. de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País) azkenaldian agertu zituen lanak euskal mitologia erlijio zaharren historia araberazko konparaketazkoak ziren, nonbait, libururen bat osatzeko asmotan. Baina, hortarako, herri literaturaz ez ezik Lizardi eta beste zenbait euskal autoreren lanez ere baliatzen zen, batez ere gure psikologia aztertu nahirik.

M. Pelay Orozkori ez zaio arrazoirik falta kale izen berriak jartzean holako gizonekin gogoratzea eskatzen duenean. Gure kultur ajeak kenduz joan gaitezan lagungarri bai dira holako gizonen oroitzapenak. Juan Thalamas ez zen herriagatik hil; baizik, askozaz ederragoa denez, herriagatik eta herriarentzat bizi izan zen.

Bere euskarazko lan bakarra, ***Euskaldun ospetsu batzuen erakaspenak,*** *Gernikan 1966an saritua izan zena, oraindik argitaratu gabe jarraitzen du. Inprimategietara ematea merezi luke, holako lanik urri dugunezkero.*

Juan SAN MARTIN

El que esté pasando casi inapercibidamente el reciente fallecimiento de Juan Thalamas Labandibar, indica claramente el achaque del desconocimiento general de los hombres que se han entregado plenamente al conocimiento y desarrollo de la cultura autóctona. El sentido artículo de Miguel Pelay Orozco en **El Diario Vasco**, del pasado día 5, me anima a hilvanar algunos apuntes que en su día recogí del finado para una catalogación de escritores en euskara y autores miembros correspondientes de Euskaltzaindia, aunque no escribieran en euskara; éste era el caso de J. Thalamas, nacido en el barrio Behobia de Irún, que hablaba vascuence, castellano y francés y realizó toda su obra en castellano; aunque después haya tenido noticias de una obra suya escrita en euskara y que permanece inédita.

Juan Thalamas, sacerdote, con estudios de Filosofía y Teología en Toulouse y París, profesor de Sociología y de Lengua Francesa en el Seminario Conciliar de Vitoria, hasta 1936. Período de sus colaboraciones en las revistas **Idearium** e **Yakintza** y en el diario **El Día**, publicó a la sazón un estudio etnográfico del País Vasco continental en el **Anuario de "Eusko-Folklore"** y las obras **Laicismo y Cristianismo** y **Aspectos de la vida profesional vasca.**

Durante su exilio, y tras finalizar la segunda guerra mundial, colaboró en **Anayak** que publicaban en París los sacerdotes vascos en destierro. En 1945, en San Juan de Luz, con Rafael Picavea e Isidoro Fagoaga funda la [illegible] (publicación al servicio del nismo popular [illegible] concluido su exilio, [illegible] San Sebastián y [illegible] manario **El Bidasoa** [illegible] todo con poesías [illegible] de "Pagogaña" [illegible] otros seudónimos [illegible] Juan de Emparan, [illegible] bar, Joannes Pagogaña, [illegible] Yholdy, Pierre Andizabal, [illegible] Dorrea, etc.

Ultimamente [illegible] duidad en el Boletín [illegible] ciedad Bascongada de los Amigos del País, con estudios [illegible] talidad popular vasca [illegible] nes de la mitología, [illegible] Historia comparada [illegible] religiones, y algunos [illegible] vascólogos ilustres.

Una de sus [illegible] la premiada en [illegible] organizado por el [illegible] Lequeitio al compositor [illegible] nario de R.M. de Azkue [illegible] el título **La mentalidad vasca, según Resurrección Mª de Azkue** publicó la S[illegible] coana de Ediciones [illegible] S.A. en 1975.

Su única obra [illegible] **kaldun ospetsu batzuen erakaspenak,** premiada en [illegible] 1966, al conmemorar [illegible] nario de la fundación [illegible] permanece inédita. [illegible] ensayos sobre las [illegible] autores vascos [illegible] dos, para completar [illegible] esta personalidad [illegible]

Arabako dorreen patronatua

Arabako probintziak duen balore estrategikoak beste herrialde eta naziotako nahi eta helburuak erakarri ditu historian zehar. Gaztela eta Nafarroa izan ziren, alde batetik, Araban heuren ordezkariak, behin eta berriz, jarri zituztenak. Lehenago, VIIIgn. mendean, Arabak Asturiako erresumarekin harreman haundiak zituela, mairuek ***"Alaba wa-l-Qila"*** *esaten diote probiniziari, Araba eta gazteluak, halegia.*

Probintziako ibar eta lurraldeak jendez betetzen ari direlarik, zenbait toki berezik sendi batzuen etorrera ezagutu, zuen. Hamargarren mendetik Arabako herrialdean jende aberatsak bere defentsa-dorrea eraikia dauka. Bete duten lurraldeko izena hartuko dute biztanle hotek deitura.

Gaztelu, dorre... probintzia honetan erruz agertzen diren eraikuntza motak ditugu, garaiko nobleteriaren beharrezko gotorlekuak. Hasiera batetan dorreek militar-funtsa besterik ez badute, errege-agintzak indarra hartzen duenean funtsa hori beste tankerakoa dugu. Defentsa-dorre izatetik dorre-etxe bihurtuko da. Bitartean...

Dorreetako ugazabek inguruko lurraldeak hartzen zituzten heuren babesean. Militar-defentsaz gainera, maiz, bertako biztanleen bizimodu ekonomiko eta... baita espirituala ere antolatzen zituzten. Jaun hoiek dorre ondoan monastegi txiki bat eraiki ohi zuten, nolabaiteko autarkia espirituala sortzen zelarik. Jakina, monastegia eraiki ondoren, jauntxoak berak jartzen zituen abadeak. Hauek elizterren hamarrenak jaso eta gero sortzaileari eman behar zioten zati bat. Eskubide hau ez zen eraikitzailearekin batera hiltzen. Eta seme nagusiak jaraunsten zuen zergak kobratu ahal izateko ohitura.

Beraz, monastegi sortzaile izateak diru iturri polita eukitzeko aukera zekarkion nobleari. Ez da, honexegatik, ezertxo ere harrigarria titulu artean hemengo eta hango monastegietako patronatu eukitzea noblearentzat ohorerik adieraztea. Sarri, auzi luzerik izaten zen eskubidearen baieztapena lortzeko, baina dena ontzat ematen zuten behin hura erdietsiz gero.

Atalako lurraldea Don Bela kondearl eman zitzaion, honen ondorengoek XIIgn, mendean ***Kejanako San Juan, Okendo eta Orozkoko San Roman,*** *eta* ***Abandoko San Vicente*** *monastegiak zabaltzen zituztelarik.*

Sarea oraindik itxiagoa egin nahian edo, monastegi txiki hauek, askotan, haundiago baten babesean uzten ziren. Hain zuzen ere, Donemiliaga Kukulakoa, Leire eta San Juan de la Peña-koak ditugu ospetsuenetakoak. Ekialdeko lautadan ziren monastegirik gehienak Nafarroako haundien babesean geldituz ziren, sartaldekoak Donemiliagakora zuzentzen zirelarik.

Jaun haiek gorabehera gogorrik izan zuten, noizean behin, Elizarekin. Erromako Gregorio VII.gnak nobleek ezin zezaketeela monastegien gaineko eskubiderik zioen. Baina eritzi honi Urbano IIgnak emandako bulda batek jarraitu zion, 1095.ean, Aragoi eta Iruineko Don Pedro erregeak eskatuta. Harrezkero, bulda honetan oinarritzen ziren nobleak heuren eskubideei eutsi ah;l izateko.

1095.ean Kalahorrako Pedro gotzaiak Atalako jaunekin egiten du ittun. Hau dela eta, ***Kejana, Perea, Murga*** *eta* ***Mariakako*** *monastegiek ez diote gotzaiari zergarik ordaindu behar izango, eta-bide batez ez dute elizek nahiz abadeek hamarrenik jasoko, ez bada alpatutako monastegi hoien hitartez egiten.*

Zenbait urte beranduago, XIIgn. mendearen hasieran, Pedro gotzaiaren jarraitzaileak, Antso Grañon, Araba osoa exkomikatu zuen ***"arabar guztiak heuren errutik atera eta salbatu ahal izateko".*** *Errua ez zen besterik: jauntxoei hamarrenak ordaintzea. Antso Grañonek eta Arabako jaunek beste itun bat sinatzen dute, azken hauek eliztarrei ez dietela indarrez hamarrenik kobratuko zin egiten dutelarik. Eliztarrek, beren aldetik, elizei zuzen ordainduko zieten gero zati bat gotzaiari emateko.*

Baina, harrigarri bada ere, baita monastegi haundiek ere jartzen zuten eragozpenik gotzaiei ordaintzeko orduan. Zaldunen babesa nahiago ei zuten Elizarena baino eta heuren asmoa aurrera atera ahal izateko, autzitan sartu omen ziren behin eta berriz.

Erromako Elizak hamarrenak kobratzeko ematen zituen arrazoiei Arabako jaunek heurenak kontrajartzen zizkieten. Probintzian eraikitako monastegietan kultoa heurei esker sortu zela zioten zaldunek, ondorioz zergak jasotzeko eskubidea ere berena zutela argumentatzen zelarik.

Mendeetan zehar iraun du patronatu-era honek, oraindik XIXgn. mendean kasu batzu ikus daitekeelarik. Nahiz eta hasierako gordintasunik ez azaldu, garai hartako ereduen luzapena besterik ez dugu.

José Mari VELEZ DE MENDIZABAL

No deja de ser curioso observar cómo se ha ido desarrollando a través de la historia de Álava un sistema religioso que tiene su inicio justo en el momento de aparecer en la provincia las torres fuertes pertenecientes a familias nobles.

A partir del siglo X, van erigiéndose en la mayoría de los puntos estratégicos que ofrece la provincia de Alava, torres cuyo objetivo no es otro que defender el territorio ocupado por esas familias del ataque de otros nobles alaveses, e incluso, de allende las fronteras. De esos territorios tomarán el apellido los dueños de las torres.

Y como si quisieran organizar, además de la defensa, la fórma de vida económica... y espiritual de los pobladores de los territorios ocupados, los nobles levantan cerca de sus torres pequeños monasterios a los que dotan de medios para, así, ofrecer un servicio religioso a sus vasallos. Los diezmos recogidos por los clérigos, nombrados por los señores, serán administrados por éstos que, de esta manera, ven como sus arcas disponen de una nueva fuente de ingresos. No es, pues, de extrañar que se dieran verdaderos [illegible] tos entre los [illegible] objetivo lograr [illegible] derecho a la recaudación [illegible] puestos. Derecho [illegible] rio.

En Alava [illegible] siglo XII los [illegible] Juan de Quesada [illegible] Oquendo y de [illegible] de Abando. Para [illegible] obispo Pedro [illegible] pactado con [illegible] los monasterios [illegible] Murga y Marka [illegible] pagar los tributos [illegible] del obispo. Pedro [illegible] ñón, excomulga [illegible] tenta "salvar [illegible] ses y sacarles [illegible] no era otro que [illegible] ños" de los [illegible] estipulado por [illegible]

Es de resaltar [illegible] estos monasterios [illegible] la tutela de [illegible] tancia como [illegible] Peña, Leire o [illegible] dos en la zona [illegible] cia sentían [illegible] por los monasterios [illegible] tras que los [illegible] cobijo del [illegible] rios éstos que [illegible] dados por los [illegible] protección de [illegible] del obispo, [illegible] constantes [illegible]

Aún ahora [illegible] puede encontrar [illegible] cencias de [illegible] inequívoco de [illegible]